



## Andrés Prieto Arana Funtsa



### Identifikazioa

<b>Erreferentzia-kodea</b>	ES20600AME_FAP
<b>Izenburua</b>	Andres Prieto Arana Fundoa
<b>Data</b>	1938 / 2009
<b>Deskribapen-maila</b>	01 - Fundoa
<b>Bolumena</b>	1 ml

### Testuingurua

#### Ekoizlea

Andres Prieto Arana

#### Aipamen biografikoa

Andres Prieto Arana Eibarren jaio zen, 1918. urtean. Borrokalari sozialista bat izan zen, eta oso gaztetatik sozialisten gazte-erakundean sartu zen. 1934. urteko urriko mugimendu iraultzailearen ondorioz, Iruñeko kartzelan egon zen preso. Fronte Popularraren garaipenaren ondoren, Eibarko epaitegiko ofizial administrari izendatu zuten. Frontean ibili zen, Irungo, Tolosako eta Lasarteko operazio militarretan. Gernikako bonbardaketatik salbatu zen, baina itsasontzian ihes egiteko zorian zegoenean tropa frankistek harrapatu zuten. Pontevedran, Santoñan eta Teruelen egon zen preso. 1938. urtean heriotza-zigorra ezarri zioten, baina zigorra aldatu zioten, eta, ondoren, Frantziara ihes egitea lortu zuen beste zazpi presorekin. Erbestean, Espainiako Batasun Nazionaleko kide izan zen, eta frantses erresistentziarentzat egin zuen lan, "gerrillari espainiarren 105 brigada" sortuta. Gerra amaitu zenean, Parisera joan zen, eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izan zen lanean Jose Antonio Agirre eta Jesus Maria Leizaola lehendakariarentzat; euskal iheslariei



sarrera errazteko lanean jardun zuen. II. Mundu Gerran, Pointe de Grave bataila gogorrean parte hartu zuen. Borroka horretan, aliatuak izan ziren garaile, 1945eko apirilean. 1979an, erbestetik bueltatu zen, Leizaola lehendakariarekin. 2010. urteko martxoaren 4an hil zen, Valentzian.

### **Artxiboaren historia**

Dokumentazioa Andres Prietoren artxibo pribatukoa da, eta Prietok frantses erresistentziako kide gisa izandako zereginari buruzkoa da.

### **Sartzeko era**

Dokumentazio gehiena Andres Prietok berak entregatu zuen, 2009. urtean, eta 2012an beste entrega bat egin zuen familiak, Andres Prieto hil zenean.

## **Edukia eta egitura**

### **Edukia**

Fondoari dagokion dokumentazioa, bereziki, Bigarren Mundu Gerrako frantses erresistentziaren garaiko Boluntario Atzerritarren Batailoiaren eta Gernika Euskal Batailoiaren antolaketari dagokio; korrespondentzia pribatua, prensa-ebakinak eta argazkiak.

### **Baloratzea, aukeratzea eta ezabatzea**

Ez.

### **Sarrera berriak**

Ez.

### **Antolaketa**

Dokumentazioaren inbentarioa eginda dago.

## **Sartzeko eta erabiltzeko baldintzak**

### **Sartzeko baldintzak**

Izaera publikoa duen agiri-fondoa. Edozeinen eskura dago, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/90 Legeak jartzen dituen mugekin. Dokumentazioaren zati bati Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta udalak berak onetsia duen segurtasun-agiria aplikatu behar zaizkio.

### **Erreproduzitzeko baldintzak**

Dokumentuen erreprodukzioa librea da, aipatutako legediak dioen neurrian.

### **Dokumentuetako hizkuntza / idazketa**

Frantsesa/gaztelania/euskara.



## **Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak**

Paperezko dokumentazioa.

## **Deskripziorako tresnak**

Inbentarioa.

## **Gehitutako dokumentazioa**

## **Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokapena**

Eibarko udaletxea.

## **Kopien existentzia eta kokapena**

Udal Artxiboa. Fondo digitala.

## **Lotura duten deskripzio aleak**

Eibarko ahozko agiria. En boca de eibarreses: Zb: AB-207, AB-467, AB-850, AB-864

## **Deskripzioaren kontrola**

## **Artxibozainaren oharra**

Yolanda Ruiz Urbón-ek egin du deskripzioa, iturri-dokumental zuzenetan eta Eibarko Udal Artxiboan (Andres Prieto Fondoa) oinarrituta.

## **Arauak**

ISAD(G) arauan partzialki oinarritutako deskripzioa, Udal Artxiboak garatutako jarraibide espezifikoen arabera.

## **Deskripzioaren eguna**

2012-12-14